# ORTOTROPÍAS

## JESÚS LIZASO

**erakusketa**

**EXPOSICIÓN**

| ERAKUSKETA ARETOA | SALA EXPOSICIONES |
| --- | --- |
| 2013ko otsailaren 7tik<br>apirilaren 7ra | Del 7 de febrero<br>al 7 de abril de 2013 |
| Astelehenetik ostiralera,<br>10:00etatik 20:00etara<br>Larunbatak, igandeak<br>eta jaiegunak<br>11:00etatik 14:00etara<br>17:00etatik 20:00etara | De lunes a viernes,<br>10:00 a 20:00 horas<br>Sábados, domingos<br>y festivos,<br>11:00 a 14:00 horas<br>17:00 a 20:00 horas |

www.kulturleioa.com

kultur LEIOA

Leioa UDALA-AYUNTAMIENTO


# ORTOTROPÍAS

## JESÚS LIZASO




# ORTOTROPÍAS

## JESÚS LIZASO

**Formak, materialak eta ehunak batu egiten dira, ikusleari sentsazio paregabe bezain bitxiak, hurbilekoak eta erakargarriak eskaintzeko. Oinatzak, bihurdurak edo hausturak, "Zaldunen Mahaia" bezalako berebiziko tamaina duten bolumen ezohikoak edota bere "Grabitateak Kubora" maneiagarriagoak dira Euskal Herrian estreinakoz aurkezten diren eskultura-proposamen multzo askotariko hau osatzen dutenak.**

Fisikan erabiltzen den terminoak, hots, "ortotropiak", Jesús Lizasoren azken ariketa antzemateko balio badigu, plastikotasunaren definizioak, hein handi batean, lan-multzo honen azpian dagoen helburua deskribatzen du.

Egurra material ortotropikoa da batez ere, baina, hala ere, nekez maneia daiteke, oso mugatua baita. Horregatik, artistak adierazkortasuna bilatzea du xede, "plastikotasun" osoa, simulatutako harikortasun baten bitartez. Lortu nahi den "aldaketak" ilusioa sorrarazten du, halako moldez non materia presionatu, tolestu edo apurtu egin dela dirudien. Logikoa iruditzen zaigunaren eta ikusten dugunaren arteko paradoxa ezartzen da. Oharkabean, aldaketa hori zer indar motak eragin duen ulertu nahi dugu.

Egur naturalak eta landu gabeak prozesuan erabiltzea, gainera, funtsezkoa da, izan ere, hausnarketa eta plangintza maila handia behar ditu. Artista behartuta dago lanaren singulartasuna ezagutzera, kontrolatu ahal izateko. Hala ere, bizia duen materiala denez, askotan, beharrezkoak ditu artistaren zuzenketak eta ukituak; hala, lana bera ezkutatu baino, bere gain hartzen du. Horren emaitza gisa, eskultura aldendu egiten da produkzio industrialaren edozein zantzutatik, eta bere egoera organikoa nabarmendu egiten da.
"Kuboak" oso ohikoak dira Jesús Lizasoren aurreko lanetan, eta, noiz edo noiz, berriro agertzen dira, apika, indar eraldatzailearen ordezkapen kontzeptual gisa, egurraren osagarri gisa eta bere metamorfosia justifikatuz.

Aldea nabarmena eta oinarrizkoa da. Metala/egurra, gogorra/biguna, zimurtsua/leuna jokoak, aldeak euren artean banatu ordez, logika eta esangura ematen dio lanari.

Lanen hautaketa honetan, bisitariak antzekotasunak eta analogiak bilatuko ditu bere eguneroko errealitatearekin, izan ere, handienetatik txikienetara, eskultura guztiek irudimenari gonbit egiten dion oinarri ludiko eta informala dute.

---

**Ortotropiak izeneko erakusketa Euskal Herrian ikusten den lehen aldia da honakoa. Erakusketa honen piezetako batzuk Florentziako (Italia) 8. Bienalean Urrezko dominarekin saritu zuten multzoaren parte dira.**

**Erakusketa berez errealitate artistiko berritua da, artistak etengabe garatzen eta sortzen baititu planteamendua aberasten duten lan berriak.**

**Formas, materiales y texturas se conjugan para proporcionar al espectador sensaciones tan singulares como extrañamente cercanas y atractivas.**
**Huellas, torsiones o roturas, volúmenes insólitos de imponente tamaño como la "Mesa de los Caballeros" o sus más manejables "Gravedades al Cubo", componen este variado conjunto de propuestas escultóricas que se presentan por primera vez en el País Vasco.**

Si el término utilizado en física "ortotropía" sirve para identificar el último ejercicio de Jesús Lizaso, la definición de plasticidad describe en gran medida el objetivo que subyace en el presente conjunto de obras.

La madera se considera un material especialmente ortotrópico y, sin embargo, su maleabilidad es limitada. Por ello, el artista busca la expresividad, la "plasticidad" plena, a través de una ductilidad simulada. La pretendida "mutación" produce la ilusión, de modo que la materia parece haber sido presionada, flexionada o incluso rota. Se establece una paradoja entre lo que creemos lógico y lo que vemos. Inconscientemente, queremos entender qué tipo de fuerza ha ejercido esa transformación.

La utilización de maderas naturales y sin procesar es, además, clave en el proceso, pues exige un alto grado de reflexión y planificación. El artista está obligado a conocer la singularidad del trabajo para poder controlarlo. Sin embargo, como material vivo que es, implica a menudo correcciones y retoques que el artista, lejos de ocultar, asimila a la obra. Como resultado, la escultura se aleja de cualquier atisbo de producción industrial, acentuando su condición orgánica.

Los "cubos", tan habituales en obras anteriores de Jesús Lizaso, reaparecen ocasionalmente, acaso como representación conceptual de la fuerza transformadora, complementando la madera y justificando su metamorfosis.

El contraste es intencionado y esencial. El juego metal/madera, duro/blando, rugoso/suave, lejos de aislar las partes entre sí, dota a la obra de lógica y significado.

En esta selección de obras, el visitante buscará similitudes y analogías con su realidad más cotidiana, pues desde las más imponentes a las más reducidas, todas las esculturas comparten una esencia lúdica e informal que invita a la imaginación.

---

**Esta es la primera muestra de Ortotropías que tiene lugar en territorio vasco, algunas de cuyas piezas formaron parte del conjunto premiado con la Medalla de oro en la 8ª Bienal de Florencia (Italia).**

**Como exposición constituye una renovada realidad artística, dado que el artista continuamente desarrolla y crea obras inéditas que enriquecen el planteamiento.**